


EUSKAL AEKO ZERBITZUEN KOIUNTURAKO INDIZEA (ZKI) 2013ko 3. hiruhilekoa

Euskal AEko zerbitzuen sektorearen salmenta- indizea %5,7 jaitsi zen 2013ko hirugarren hiruhilekoan

Merkataritza %4,4 jaitsi zen eta beste zerbitzuak %7,1

Eustatek emandako datuen arabera, 2013ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko zerbitzuen sektoreko salmenta-indizea %5,7 gutxitu zen, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,1 nominala hazi da, urtaro-eraginak kenduta.



Merkataritzaren salmenta-indizea %4,4 nominala jaitsi da 2013ko hirugarren hiruhilekoan; indizearen parte diren beste zerbitzuetan %7,1 jaitsi da 2012ko aldi beraren aldean.

Merkataritzaren barruan, Handizkakoan %4,6ko jaitsiera nominala dago, eta Txikizkakoan %5,9koa. Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan %2,2ko murrizketa dugu aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Beste zerbitzuen sektore guztietan, tamaina ezberdinetako jaitsierak. Jaitsiera handienak Informazio eta komunikazioetan, %12,8, Jarduera administratibo eta

zerbitzu lagungarrietan, %10,1 eta Ostalaritzan, %9,0. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetako salmenten jaitsiera %7,3, eta Garraio eta biltegitratzearena %1,3.

Hiru lurraldeek jaitsierak izan dituzte salmenta-indizeetan: %7,1 Bizkaian, %6,7 Araban eta %2,9 Gipuzkoan.

Termino errealetan, prezioen eragina kenduta, zerbitzuen sektorearen salmentak %7,1 jaitsi ziren hirugarren hiruhilekoan

2012ko hiruhileko beraren aldean eta prezio finkoetan, Merkataritzaren salmenta-indizea %5,9 jaitsi da, eta Beste zerbitzuena %8,9.

Merkataritzan urte artekoa negatiboa izan da sektore guztietan: Handizkako merkataritzaren salmenta-indizea %5,1 jaitsi da, Txikizkakoarena %8,5, Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa %0,4.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen gainerako koiuntura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. III/2013(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-5,7	0,1	-7,1	-1,3
Araba	-6,7	-0,1	-7,8	-0,4
Bizkaia	-7,1	-0,4	-8,5	-1,9
Gipuzkoa	-2,9	1,2	-4,3	-0,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Merkataritza	-4,4	0,1	-5,9	-0,3
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-2,2	2,8	-0,4	1,7
Handizkako merkataritza	-4,6	0,5	-5,1	0,2
Txikizkako merkataritza	-5,9	-2,3	-8,5	-3,2
Bestelako zerbitzuak	-7,1	-1,6	-8,9	-1,9
Garraioa eta biltegitratzea	-1,3	0,8	-3,3	-1,8
Ostalaritza	-9,0	-2,0	-10,7	-2,3
Informazioa eta komunikazioak	-12,8	-3,0	-11,4	-1,3
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-7,3	-1,5	-10,1	-2,0
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-10,1	-3,8	-12,7	-4,4
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-5,2	-1,1		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko zerbitzuen gainerako koiuntura-indizea (ZGK)

Beste zerbitzuetan, euro finkoetan: Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuena %12,7 jaitsi da; Informazio eta komunikazioena %11,4; Ostalaritzarena %10,7. Jarduera profesional zientifiko eta teknikoen salmenta-indizea %10,1 jaitsi da eta %3,3 Garraio eta biltegitratzearena.

Euskal AE osoan, 2013ko hirugarren hiruhilekoan, zerbitzuen sektorean landunen kopurua %1,1 gutxitu da aurreko hiruhilekoaren aldean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Prentsa-oharrak Interneten

Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Datu-bankua